

# ¡BARRENEN ARRA!

Abalisketa egintza bakarran  
Marcelino Soroa eta Lasak idatzia

Egilleak gizon bakarrentzat idatzi zuben, eta geruago Juan Inazio Urangak antolatu zuben emakumeentzat. Liburu ontakua antolapen berria da.

## EGINTARIAK

ANDRE PRUDENTXI	(40 urtekua)
MARIYA	(20 urtekua)
BRAULIO	(65 urtekua)
JUSTINO	(23 urtekua)
ESTEBAN	(50 urtekua) sendakiña
MIGEL MARTIN	(55 urtekua) baserritarra

Ezker eskubiyak egintarienak

## EGINTZA BAKARRA

Iruditegiak aurkeztatzen du etxeko lekurik onena.  
Eskutazapiya altxatzerakuan, ateratzen da Braulio bere gelatik estuasun aundiyan, izutua bezela, aldi zarretako sillatzar batian exeri ta gelditzen da doakabetsu baten antzera.

### LENBIZIKO IRUDIA

I

### BRAULIO BAKARRIK

BRAULIO

(*Gutziz izutua*). ¡A!... ¡Ezin begirik itxi!... Bazkaldu ta lo pixka bat egin nai ta... ¡Alferrik! Beti aren arpegiya nere aurrean azaltzen da. ¡Zer zorigaiztoa! ¡Oyeratu ta gau guztiyan ezin luak artu! Begiyak itxi ta alare ikusten... bai... illunpetan ere ikusten gauza bat, batek nai ez lukiana, ta gauza bera besterik ez ikusten, anima ikarutzen dubena ta itoko balu bezela. ¡A!. (*Beste doñuban*). Bañan ez; ez da ezer au, zarraren irudipenak. Ori da bai kendu biar dana, azturik txorakeri abek. Justinok ezkondu biar dubela ta, ondo egingo du. Orduan jende geyago familiyan; elkarrekin biziko gera, ta ori obe izango det, zergatik ez naizen gauz abetaz oroituko. Andregayak ez omen du dirurik, bañan... ¿Zer egingo da?. ¡Menturaz, diruak ematen al du zoriona?. Ez, ez. Orra, nik dirua badet, eta orrek nauka galduba. ¡Zertarako?. ¿Zertarako nuben orlako diru gosea?. ¿Non da ez nubeneko paketasuna?. (*Altxatzen da*)

(*Illuntzen asten da*)

¿Zertako jua nitzan Amerikara? ¿Zergatik jarri nuben an anka?. ¿Zer zoriona nekarren emengo exkasiyakin! ¡Doakabezko eguna, gizon ura nere aurrian jarri zanekoa! ¡Beti kontu bera!. (*Exertzen da*)

(*Geruago ta illunago*)

Beste gauza nekarren len buruban. Bai, bai. ¿Zer zan? ¡A! Justinok ezkondu biar dubela. ¡Gizagajua! ¡Nere illoba laztana!. Txikitandikan, esaten ziraten mutil ona, argiya eta buru azkarra zala; eta Amerikatik etorri nitzanian arkitu nuben erretore jaunak latiñak eta beste ikas-gai asko erakusten zizkala. Arriturik gelditu nitzan mutillaren argitasunarekin. Orduban artu nuben nere kontu, eman dizkat eman ala eskola, letradu egin da, gizon izateko eran jarri det... Eta au guztiya, ez bakarrik nere aidiai laguntziagatik, ez ta ere mutillaren azkartasunari jasaitziagatik bakarrik, baizik ia egipen on abek egin ta, barrengo paketasun galdua nereganatzen nuben.

¡Eziñ!... ¡Eziñ!... ¡Alferrik! Beti barrenen beste gauza bat.

(*Oso illun*)

(*Asarre*) ¡Atzaparrekin urratu albanezake! ¡Irudipenak!... ¡Irudipenak!

(*Pixka bat itxedon ta*)

(*Tximist urrutiko banaka batzubek*)

¿Zer nekarren len buruban? Justinoren ezkontza. Bai, zer ongi biziko geran; ori biar degu ori, pake pakian. Andregayak ez dubela dirurik, ¿ta zer? Nerekin izateko, ta irudipen abek ken azitzeko, neronek emango diyotet neria.

*(Batetan altxatzen da)*

*(Tximistak alderago eta ugariyago)*

¡Neria! ¡Jesus! Diru ori ez da neria. Diru orrek erretzen ditu nere eskuak. Bañan... ¿Zertarako billatu ninduben?. Gau illuna ta txarra zan, bai. Aize gogorra, tximistak eta turmoyak alde guztiyetatik. Galopian zaldiz etorri zan, jo zuben atia, iriki niyon, eta esan ziran:

*(Tximistak, eudi otsa, turmoi batzubek)* “Braulio, Tukumana juan biar det presaka, ta gorde nazu au. Au da ogei urteko nekiakin egiñ detan dirua. Zu zera neretzat anai bat bezela, ta ni etorri bitartian ez det uste beste iñork obeto kontu egingo diyonik. Zortzi egun barru emen naiz...”

Eta batian izan ziran tximistak, turmoyak eta zaldiyaren galopia. Orduban nik...

*(Turmoi ikaragarriyak, tximist eta eudi jasa)* ¡Zer da au! ¡Jesus! Egun artan bezela. ¡A! ¡Jaungoiko maitia! Ez nazazula utzi zure eskutik. Ez dezatala entzun ikaragarritzko soñu ori!

*(Turmoi arrabots aundikuak, tximistak bertan balira bezela)* ¡Berriz! ¡Non gordeko ote naiz!. ¡¡¡Barrena!!!. ¡¡¡Barrena!!!

*(Bere gelara sartu)*

*(Tximist eta turmoyak gogorrak)*

*(Justino ezkerretik)*

## BIGARREN IRUDIA

### II

## JUSTINO BAKARRIK

JUSTINO

*(Ezkerretik ateriaz eta leyora begira)*. Egualdi gogorra jarri du. Eskerrak urte sasoi ontan, ekaitz, tximist eta turmoyak etorri bezin laster alde egiten dutela, ta orru ta durrundi aben ondoren laster iruzkiyak azaltzen dula bere arpegi atsegiña. *(Aurreratubaz)*

*(Tximist eta turmoyak gutxitzen eta urrutiratzen)*

¡Udako ekaitzak, ekaitz xamurrak! *(Eskuiko atera alderatubaz)*

¡Ez ote da osaba oraindik jeiki?. Ez, itxiya dauka gelako atia. Obe, luzaro dagonian ondo dagonen itxura da. *(Erdira)*

*(Tximist banaka batzubek)* ¡Osaba gizagajua! Seme bat bezela maite nau. Ez da aiten artian aitik sortu, neretzako osaba dan bezelakorik. Bere kontu artu nindun, letradu egin nau, eta orain, zoriontasun guziyaren jabe egiteko, Mariyaren biyotz laztana

neriakin batu nai du, ezkondu nai gaitu; biyak emen, bere onduan, gure kabitxo pozgarriya izan dezagun.

*(Tximist eta turmoyak amaitu dira, baña entzuten da eudi jasa gogorra)*

¡A! Bañan zoriontasun neurrigabeko ontan, ez degu osaba itzalpean, antzi larritan, atsekabez betea ikusi nai. ¡Ez!. Mariyak eta nik alegiñak egingo ditugu, osaba gizagaixoa poztutzeko, pizkartzeko, osasun bete betian ikusteko. Eta ondo premiya dauka zergatik askotan arkitzen da samiñez betia bezela, eta bere artian izketan... ¡Urtiak!... ¡Urtiak gañian, eta berekin ajea!.

*(Andre Prudentxi ta Mariya atzeko atetik)*

### IRUGARREN IRUDIA

#### III

JUSTINO, ANDRE PRUDENTXI TA MARIYA

*(Sarrerako atian igarriko da norbait dabillega kanpotik)*

JUSTINO *(Atera begiratuaz)* ¿Zein dira or?. *(Pixka bat alderatuaz)*. ¡A! Andre Prudentxi, ta Mariya. *(Andre Prudentxik euritakua itxitzen duben bitartian, Mariyak irikiko du pixka bat atia, ta azalduko du arpegiya par irriyan agurtuaz)* Banekiyen iruzkiyak azaldu biar zubela, baña ez nuben uste orren arpegi zoragarriyarekin.

ANDRE PRUDENTXI *(Sartubaz, euritakua eskuban dubela)* ¡Ixilikan, barbantsu!

JUSTINO *(Euritakua artubaz)* Bekar euritakua, andre Prudentxi. *(Sartuko da Mariya atia itxiyaz, Justinok artuko diyo euritakua)* Ekatzu zuk ere. *(Bi euritakuak jarriko ditu ortarako dan armarioan, eta bereala esku emango dio andre Prudentxiri)* ¿Zer diyo andre Prudentxi?

ANDRE PRUDENTXI ¿Zer esango det? Plei, plei egin gerala. Petral ederrak eraman biar ditugu etxera gonabarrenetan.

JUSTINO Exeri bedi. *(Exertzen dira irurak, Mariyari esku emanaz)* ¿Eta zuk Mariya?

MARIYA Etorri gerala egualdi txarrekin badare.

JUSTINO Zurekin ez dago ezer txarrik, ez ta egualdirik ere.

MARIYA Ez nozki, orain bota duben eudi zaparra-re...

JUSTINO Intz xamur eta gozotsua zan, nere aurrian arrosa berdingabeko au zabaltzeko.

MARIYA Beti orla, montxontxo.

JUSTINO Beti nere izarraren errañuz ezin aserik.

MARIYA Esan bai.

JUSTINO Izan geyago.

MARIYA Zuk esan, ta nik izan biarluke gero.

JUSTINO Izana, nik.

MARIYA Edo nik.

JUSTINO Nik.

ANDRE PRUDENTXI Fu, fu, fu. ¿Ortara etorri al gera?

MARIYA Onek esan dit eta...

ANDRE PRUDENTXI Bai, ta zuk erantzun.

JUSTINO Andre Prudentxi, maitasunaren indarrez biyotzetik españetara irteten diran zizpirioak dira. Badaki...

ANDRE PRUDENTXI Ez det bada jakingo. Ur oyetan ere pasia naiz, bai. Etzazutela uste. Nere senarrak esaten zizkiran orlako limurkeriak, bañan azpalditxo aztu zitzaizkan. ¡A!, ezkongaitako iturri oparuak laister agortzen dira ezkondu ezkeru.

JUSTINO Nere biyotzian Mariyarenganako sortu dan urtoki ugaria, sekulan agortuko ez dana da.

ANDRE PRUDENTXI Begira, begira, utzi itzazute txorakeriyak alde batera, eta itzegin zagun biar dan bezela. ¿Nola dago osaba?

JUSTINO Al dakit zer esan. Eguna joan ta eguna etorri, ta beti berdin. Otordu bat onik ez, ez ta lo aldi bat ere itxurakorik. Beti mintsu, beti negargarri, geruago ta eroriyago, geruago ta makalago, geruago ta ondatuago.

ANDRE PRUDENTXI Nere senarrak bada, ez diyola ezer arkitzen esaten du.

JUSTINO Ez omen diyola arkitzen ez. Baña badu zer edo zer barren ortan, bada txinpart atsekabezkoen bat gorputz guztiya su ta gar kixkaltzen jartzen diyona, eta oñaziaren naigabiak irteten dizka arpegira samintasunezko lañoak. Errukigarria dago. Eta alare, oñazeik zorrotzenetan, naigabeik gogorrenetan, beti neregana maitasun neurri gabea azaltzen dit. Asko egin dit, eta geyago egin nai; mesede aundiak badira lenguak, aundiagoak nai ondorengoak. Eta ikusirik bere naigabezko izakeran neregana daukan lei bizi ta sutua, purrukutzen zait barren guziya, eta esaten det askotan: “Jauna, senda beza nere osaba, bere gaitz guztiyak neregana botako baditu ere”.

MARIYA Ez ori esan Jaungoikoagatik.

ANDRE PRUDENTXI Gauza oyek ez dira aiatu biar ere.

JUSTINO Biyotz biguñ eta atsegiña, asturik bere neke, samin eta beaztunak, bera da gure ezkontza lenbailen egiteko sayatzen dana, zoriontasunaren jabe alik eta azkarrena gu ikusteagatik.

ANDRE PRUDENTXI Alaxen da. Atzo emendik juan zanian nere senarra, esan ziran nola zure osabak adierazi ziyon gure illobarekin zu ezkondu nai zindula, eta lenbailen egitia naiko lukiala.

MARIYA ¡Gizaraxua! ¡Zer ona, e!

JUSTINO Ala esan ziyon bai. Irrikitzen dago gu alkarren jabe ikusteagatik.

ANDRE PRUDENTXI Bera ez bazan aurreratu, ez genduben guk ezer esango baña...

JUSTINO Jakingo-re entzuten, Mariyak etziyoten ezer aiatuko ta.

MARIYA ¿Nola nai zenduben?

ANDRE PRUDENTXI Ba, ba. Ezer ez esanagatik igarritzen nuben nik zer zebilkizuten alkarren artian. Zumayako ikastetxetik etorri berriyan, Madre Rosa gora, ta Madre Katalina bera, aldaria emen, ta aldaria an, beste gauzik etzegon gure etxian.

MARIYA Izeba...

ANDRE PRUDENTXI Bañan, azken aldi ontan, Madriak... agortu egin ziran nunbait, eta aldarietan ere igarri nuben santu berriren bat zebilela.

MARIYA Zer gauzak esaten dituben.

JUSTINO ¿Ni ote nitzan santu berriya?

ANDRE PRUDENTXI Esan nai det, zerbait jakiñagatik, ez giñala gu iñola-re aurreratuko. Ez daukagu illoba saltzeko.

JUSTINO Sinixten det.

ANDRE PRUDENTXI Bañan zure osabak asiyera ematen duben ezkerro, esan genezake ondo artzen degula zuben arteko gogamena, eta gure aldetik egingo degula al guziya zuben zorionerako.

JUSTINO Eskarrikasko andre Prudentxi.

ANDRE PRUDENTXI Lenbailen nai du zure osabak, bañan zer edo zer moldatuko badegu denbora pixka bat biar da. Erropa txuri zerbait ere egin nai genioke, eta gaur goizian asi da or Ezeizabarreneko alabakin, biarrenak beñepin antolatzen ote ditugun. Ezagutuko dituzu Ezeizabarrenekuak.

MARIYA Naxari ta Jobita.

JUSTINO ¿Jobita? ¡A!, sugur kako duben ura.

ANDRE PRUDENTXI Sugurra ez dakit nolakua duben, baña eskuak, ¡A!, eskuak... beriak ditu.

JUSTINO Baita sugurra-re.

ANDRE PRUDENTXI Ikusgarriyak dira aren eskubetatik ateratzen diran gauza primoriak, aingeruak berak egifak dirudite.

MARIYA Guztizkua da.

ANDRE PRUDENTXI Bada, esan bezela, goizian an izan da, eta orain ere ara ginduazen, eta bat batian esan det, sartu atera bat egin biar degu emen, osabak ezagutu dezan nere illoba, eta orra zertara etorri geran.

JUSTINO (*Altxiaz*) Ederki esana. Beriala deituko diyot bada. Lotan dago orain, baña pozik eta pozik esnatuko da bere illobagaya ezagutziagatik. Zoratzen dago ta.

ANDRE PRUDENTXI (*Altxatzen dira izeba illobak*). ¿Nai dezu ixilik egon? ¿Lotan dagon gizon gizarajua esnatuko dezu bada?

JUSTINO Bestietan garai ontarako jeikiya egoten da.

ANDRE PRUDENTXI ¿Ta zer?. Lotan badago, dagola. Miñez dagonarentzat ez da lua bezelakorik. Jana baño-re, biarragua da lua.

JUSTINO Orduban itxongo bezate.

ANDRE PRUDENTXI Ezin genezake. Badakizu zertara guazen, eta gañera badakizu guk ez degula presik, zure osabak ematen digula presa.

JUSTINO Baña...

ANDRE PRUDENTXI Au utzi ta beriala etorriko naiz ni, osabari agur bat egitera, eta au berriz ekarriko det illunabar aldera.

JUSTINO ¿Zergatik ez dute pixka bat itxogiten?

ANDRE PRUDENTXI Zeronen kaltian izango litzakelako.

JUSTINO Ala baldin bada... Gero arte orduban. (*Justinok emango diyo andre Prudentxiri bere euritakua. Eskuban artuko du Mariyarena*)

ANDRE PRUDENTXI Bai, beriala emen naukazute. (*Euritakua zabaldu ta juango da*)

MARIYA Ni geroxiago etorriko naiz.

JUSTINO Ez, zu emen geldituko zera...

MARIYA Badakizu ezin detala.

JUSTINO Nere biyotzaren barren barrenian. (*Aterako dira atarira, Justinok zabalduko du euritakua. Mariyak ere elduko diyo, ta batek jua nai ta bestiak gelditubaz egongo dira*)

MARIYA Ez dezu txikiya izan biar.

JUSTINO Gorputzian ezin kabi alakua, ta dana zuretzat.

MARIYA ¿Egiya ote da gero gezur ori?

JUSTINO Nere maitiaren españetako anpolai mardulak baño egiyagua.

MARIYA Zuk esateko, ez da gutxi.

JUSTINO Geyago-re esango dizut.  
ANDRE PRUDENTXI (*Barrendik*) Tira, tira, geran.  
MARIYA ¡A! Izeba. (*Juaten da korrika. Justinok egiten diyo agur atetik*)

(*Braulio eskuitik*)

LAUGARREN IRUDIA  
IV  
BRAULIO TA JUSTINO

BRAULIO (*Eskuiko atetik sartubaz*) ¡Eziñ, eziñ burutik atera!  
JUSTINO (*Atia itxi ta sartubaz*) ¡A! Osaba... (*Atzera juaten bezela azten da, baña gelditu*)

BRAULIO ¿Zer da?  
JUSTINO Ezer ez. ¿Egin du eguardiko lua?  
BRAULIO ¿Lua? Ez, Justino, ez. Eziñ begirik itxi, ala gabian, nola bazkal onduan.

JUSTINO ¿Oraindik aize txar ori etzayo juañ?  
BRAULIO ¿Aizia juañ! ¡Aizia! ¿Zer aize?  
JUSTINO Aize txar...  
BRAULIO Ain txarra. Jakin biar dek Justino, nik...  
JUSTINO ¿Zer?  
BRAULIO ¡Ezer ez, ezer ez! Iñork ez daki ta...  
JUSTINO ¿Iñork ez dakiyela zer miñ duben?  
BRAULIO ¡Ez, iñork ez...! ¡Jaungoikuak eta nik bestek!  
JUSTINO ¿Sayetzian jartzen zayon miñ ori?  
BRAULIO ¿Sayetzian! ¡A!, bai, bai...  
JUSTINO Albanioke nik sendatu, gogotik egingo nioke bada, eta neregain balego, beorri ez ikusteagatik orren mintsu ta errukigarri, bedorren orde z neroni etortzia naiko nuke miñ ori.

BRAULIO ¿Miñ au? ¡A! ¡Jaungoikuak nai ez dezala!  
JUSTINO Zer bada... ¿Okerrago al dago?  
BRAULIO Bai, egunero ta okerrago. Beti barrenen zerbait urratzen balijua bezela, lertu nayan.

JUSTINO Bada, sendakiñak...  
BRAULIO ¡Sendakiñak!...  
JUSTINO Oraintxe izan da emen andre Prudentxi...  
BRAULIO ¿Andre Prudentxi emen?  
JUSTINO Bai, Mariyarekin.  
BRAULIO ¿Mariya-re bai? ¿Ta, zergatik ez nak deitu, jakiñik Mariya ezagutzeko zalantzan nagola beti?

(*Argitzen asten da*)

JUSTINO Lo egongo zalakuan ez dirate utzi.  
BRAULIO Gaizki egin dek bada.  
JUSTINO Ez beza kezki izan orrengatik, andre Prudentxi beriala emen da, ta Mariya berriz etorriko da illunabar aldera.  
BRAULIO Etziok gaizki.

JUSTINO Bada, len ere banekiyen, bañan ementxen esan du andre Prudentxik garbi asko, bere senarrak, On Estebanek ez diyola beorri ezer arkitzen.

BRAULIO ¡Estebanek! Estebanek ez dik gaitz au ezagutzen, etzekik miñ abek zer diran.

JUSTINO Ekarriko degu bada Donostiatik sendakiñ izen aundikoen bat, oker edo zuzen saya gaitian alde guztiyetara.

BRAULIO Ez, ez. Donostiko sendakiñak ere ezin ezer egingo ditek. Justino, badituk miñ batzuek... ¡A! ¡Zer miñak!. Buruan asi ta biyotzian bukatzen diranak. ¡Ta ezin lo egin au!. Ta pixka bat luak artu orduko, amets batzuek, biyotza puzkaka urratzen dutenak. Jaungoikuak, Jaungoikuak bakarrik sendatzen dizkik miñ abek.

JUSTINO ¡Beti bezela! Bañan Jaungoikuak lagunduagatik, nai du gure aldetik al dan guztiya jartzia.

BRAULIO Bai... bai... jarri, ta nik kendu egin, ¡Jesus!.

JUSTINO ¿Zer du?

BRAULIO Ezer ez, ezer ez. Nik kendu egin nai miñ au, ta... burutik ezin kendu au...

(Argiyago)

JUSTINO Ez beza orlako laño beltzakin estali gure biziera nekatsua.

BRAULIO ¿Zer nai dek bada?

JUSTINO Bi maitasunek dakazkite lotubak nere animan beren sustrai ondokoyak. Bata, beorri da; Mariya bestia. Onen aldetik guztiya agertzen zait argi, alai, poztasun eta atsegiñez diztiatua. Beorren aldetik berriz dana itzal, dana illun, dana beltz eta bildurgarri. Eta nola biyak dauden katiatubak biyotz berian, eta bi maitasunak bat bakarra jotzen duten, argiya ta illuna, atsegintasun ta errukitasuna, par irri alai ta malko garratz mingarriak batian sortu ta ernetzen dira nere barren urrikarrian, eta zorigaiztoko orduan ikusten ditut Mariyaren laztan xamurrak itotzen dirala nere osabaren malko garratzetan.

BRAULIO Bai, egiya dek, ni nak ire zorionaren itzal, lanbro goibel atsekabea. Barka nazak Justino, neretzako maitasun apur bat badaukak.

JUSTINO Apurtzen lagako nuke gorputz guztiya beorren onagatik ¿Baña zergatik ez du alaitzen gure izaera gozotasunezko errañu pozkidagarri batekin?

BRAULIO Eziñ, eziñ. Nere barren guziya kixkaltzen zioz egipen zital batengatik. Eta gabaren zurrumuruak, ibai ondoko zelai illunean ixiltasuna astintzen duben eran, nere animatik sortzen diran karraxi etsimenak zoratzen ditek nere buru guziya eta zigortzen ziatek gorputz dana, begietatik txingar gorri odoltsuak botiaz.

(Oso argi)

JUSTINO Egipen oyek ez litezke egiyak izan. Karraxi ta zurrumuruak gezurrak dira. Beorri gizon prestua, ona, zintzua izan da beti.

BRAULIO (Aurreratuaz) ¡Ez!, ¡ez!.

JUSTINO ¡Bai!, ¡bai!.



BRAULIO                    ¡Gizon gaizkille bat nak ni!. ¡Nere eskuak txarkeri lotsagarrienen ordoikeriz anpatuak zioztik!

JUSTINO                    ¡Ez!, ¡ez!.

BRAULIO                    ¡Bai!, ¡bai!. Entzun nazak, Justino, aitorpen ikaragarri bat.

JUSTINO                    ¿Zer?...

BRAULIO                    Aditu zak, oraindik nere abotik beñere atera ez dan egi garratz, loitsu, lakatza, eta lotsatu adi ire osabaren illoba izatez.

JUSTINO                    ¿Nola?

BRAULIO                    Nik Justino, egin diat egin liteken gauzik lotsagarriena, urtiak juan ta ere bere zipriztiñ odoltsuak naztutzen ditek nere buruba, aren oroiopenak kiskaltzen dik nere barrena labe gori gartsuan...

JUSTINO                    ¿Zer bada?

BRAULIO                    Entzun zak ondo Justino. Gau illuna ta txarra ukan bai. Aize gogorra, tximistak eta turmoyak...

(*Andre Prudentxi atzetik*)

## BOSTGARREN IRUDIA

V

### BRAULIO, JUSTINO TA ANDRE PRUDENTXI

ANDRE PRUDENTXI    (*Atzeko atetik sartubaz*) Ara ni berriz ere. (*Biyak arriturik mutututa bezela geldituko dira*)

BRAULIO                    ¡E!

JUSTINO                    Andre Prudentxi.

ANDRE PRUDENTXI    ¿Emen al degu On Braulio-re? ¿Zer moduz? (*Justinok artuko diyo euritakua ta eramango du bere lekura. Andre Prudentxik emango diyo eskuba Brauliori, ta exeriko da bere aldamenian*)

BRAULIO                    Gaizki, ni gaizki.

ANDRE PRUDENTXI    Ez daka bada itxura txarrik. Ondo attona pollita dago.

BRAULIO                    Ez nago bada ondo.

ANDRE PRUDENTXI    Itxurapenak dira oyek. Beorren gaitzak badakizkigu zer diran, aberatz miñak, dirubak ematen dizkan miñak ditu beorrek.

BRAULIO                    ¡Dirubak!... Bai, baliteke...

ANDRE PRUDENTXI    Aberatzak ere zerbait izan biar, badaki “emen zeruba ta an zeruba, adarra”.

BRAULIO                    Emen beñepin adarra daramat.

ANDRE PRUDENTXI    Badakigu, badakigu ezer ez dubela. Esan diyot ori-re lenago.

JUSTINO                    Bai, badaki.

ANDRE PRUDENTXI    Emen izan naiz nere illobatxquarekin.

BRAULIO                    Ala esan dit Justinok eta naiko zinduztetan ikusi, zoratzen nago Mariya ezagutzeko ta.

ANDRE PRUDENTXI    Izan ere beorrek ez du ezagutuko, nola denbora gutxi arte Zumayako ikastetxian iduki degun. ¡A! ¡Aingeru bat da!. ¡Aingeru bat!. Ez nuben uste iñori artu nezayokenik orri diyotan maitasuna, ta ori senarraren aldekoa delarik; baña alakoxia da gure panpoxa.

BRAULIO                    ¿Senarraren aldekoa da beraz?

ANDRE PRUDENTXI    Bai, nere senarraren anai bat zuben aita. ¡Makiñabat ikusitako aurra! Ume orri gertatu zaizkan gauzak ikaragarriyak dira, ikaragarriyak. Bañan ez dizkat aitatu-re nai. Beorri ez dago orlako

gertaera negargarriak entzuteko. Beorrek gauza alayak, jostakiñak biar ditu.

JUSTINO Alaxen da. Ori bera esaten diyot nik.

ANDRE PRUDENTXI Bada, gaxua umezurtz gelditu zanian, etxera ekarri genuben. Guk ere aurrik ez bada ta... Nere itxura ikusi ta edozeñek esango luke lakarien bat izan biar ditudala, baña orla izaten dira gauzak ta... Gaur beñepin ez nuke esango nere alaba ez danik.

JUSTINO Biyotz guztiyak bereganatzen ditu bere doai eztsu ta atsegiñakin.

ANDRE PRUDENTXI Ikusiko dute, ikusiko dute Justinorekin ezkontzen dan egunian. Etxe onek goikuaz bera jira eman biar du. Izan ere, etxe ontan gizon bakarrak daude, ta gizon arteko biziera gauza motela da. ¿Zer gertatzen zayote mutil zarrai? Gazte diran bitartian, arro ta panparroi, ¿ta gero? lisun usaya-re botatzen dute. Lerdia ta karkaxa dariyotela, azkenian sisak jaten ditu.

BRAULIO Au andre Prudentxi.

ANDRE PRUDENTXI Etxe ontan ori bera gertatuko litzake. ¡Sisak jango lituzke!. Bañan Mariya etortzen danetik, a zer arroaldiya eraman biar duten.

BRAULIO Lenbailen etortzia nai degu bada.

ANDRE PRUDENTXI Bai noski. Ta gero... etorriko dira... xanko gorriyak ere... ¡A! Orduban ditu beorrek egun gorriyak. Attona emendik, attona andik. ¡Juango zaizka bai oraingo itxurapenak!

BRAULIO Ori nai nuke bada.

ANDRE PRUDENTXI ¿Nola ez? Beorren gaitz guztiyak itxurapenak dira, ta beorren aldetik egin biar du al guziya nazpilla oyek danak burutik botatzeko.

JUSTINO Ori bera esaten diyot nik.

ANDRE PRUDENTXI Eta beorrek ezin badu, ekarriko det nik egingo diyona. Astinduko du nere illobak.

JUSTINO Gogotik lagunduko diyot nik ere.

ANDRE PRUDENTXI Baita nik ere. Iruren artian txetuko ditugu etxe ontako sisa guziyak.

BRAULIO Eskerrikasko zuben nai onagatik.

ANDRE PRUDENTXI Gustua litzake emen egotia, bañan ezkontzarekin ez dakat ezertako astirik. (*Altxiaz*). Badaki guk ez degula presik, beorrek ematen digu presa...

BRAULIO Bai, egiya da.

ANDRE PRUDENTXI Gero etorriko naiz Mariyarekin, eta ondo ondo egon ¿e?

BRAULIO Alegiñak egingo ditugu.

ANDRE PRUDENTXI Ori egin biar du, ori, zergatik beorrek ez dauka miñ itxurarik ere.

BRAULIO Obe nuke bada.

ANDRE PRUDENTXI Aitzekiyak besterik ez ditu. Ardipaten pupua, ta txanpon baten trapua. Ariyo. (*Braulio altxatzen asten da*) Geldi, geldi, ez mugitu. Iñork ez luke esango gaitzik dubenik. (*Andre Prudentxik egiten diyokeñu Justinori gaizki dagola*) (*Gero, Justinok emateakuan euritakua*) Ez det batere ondo arkitzen zure osaba,... bañan aldan guztiya alaitzera egin biar da. (*Eskubakin ikusiko du ez dala euririk, eta alde egingo du*) Gero arte.

JUSTINO Bijua ondo.

*(Igartzen dubenian andre Prudentxi jua dala, etorriko da Justino lasterka osabarengana)*

JUSTINO Osaba, laster, aguro, ¿zer da aitorpen ikaragarri ori?  
BUULIO ¿E?  
JUSTINO Egi garratz, loitsu, lakatzak, ¿zer dira?  
BRAULIO ¡Irudipenak! ¡Irudipenak!  
JUSTINO Bañan... len esaten asi dan tximistak eta turmoyak...  
BRAULIO ¡Nik esan dizkiat?  
JUSTINO Bai bada.  
BRAULIO ¿Ikusten dek? Gaitzak ematen dizkian txorabiyuak dituk.  
JUSTINO Bañan nola liteke...  
BRAULIO ¿Ez diyok entzun andre Prudentxiri? Nere miña ori dek, ¡itxurapenak!  
JUSTINO Orduban, ¿ez da egiya adieraztera eman diran egipen lotsagarria?  
BRAULIO Ez noski.  
JUSTINO Eta geyago gabe zauritu dit biyotz guztiya, eta lanbro beltz odoltsuakin estali du nere etorkizun kupidagarriya.  
BRAULIO Entzun diyok andre Prudentxiri...  
JUSTINO Beorrek ere entzun diyo bada, eta goguan artu biar ditu aren esanak. Bota bitza burua nazpillatzen dioten txorabiyo zentzu gabekuak...  
BRAULIO ¡Bai, bai!  
JUSTINO Orla beorrek izango du lasaitasuna eta guk ere aldenduko diogu orain arte daraman izaera garratzari.  
BRAULIO Ori dek ori, gaurtandik alegiñak egin biar dizkiat kentzeko irudipen abek.  
JUSTINO Sayatu bedi...  
BRAULIO Orain bertatik... eta ortarako, atzo bezela, irakurri nazak zerbait.  
JUSTINO Bai jauna, beriala ekarriko diyot liburutxo bat.  
BRAULIO Ederki. Libururen bat irakurtzen nakenian paketasuna zeukat nerekin. Nola ez naizen oroitzen gauzez, joaten zak burugaltze au.  
JUSTINO Beriala emen naiz bada. *(Juaten da ezkerretik)*

## ZAZPIGARREN IRUDIA

### VII

#### BRAULIO BAKARRIK, GERO JUSTINO

BRAULIO ¡Iya aitortu niyon! Ez, ez dezala sekulan jakin bere osabaren billaukeri zitala. ¡Zorigaiztoko egunak! ¡Baña arratsak, beñere bukatzen ez diran arrats oyek ematen dirate ikara!. Bakarrik nagonian jende aurrian egon nai det, eta jende aurrian banago, bakartasunaren billa nabill. Badirudi guztiyak zerbait ezagutzen dutela nere arpegiyan. Bañan ez, iñork ez daki... iñork ez du jakingo... ez ta Justinok ere.

*(Justino ezkerretik)*

*(Justino ateratzen da ezkerretik liburu bat eskubetan dubela, eta juango da leyora eta andik begira geldituko da)*

BRAULIO Nere eskuetara etorri zan... ¿zertarako ekarri zuben diru pill ura? Bera etorri ez bazan neregana, ¿gertatuko al zan zorigaiztoko lapurreta ura? ¡Ez! ¡ez!, ¿nik aldet kulpa?

JUSTINO (*Leyotik*) Bai jauna.

BRAULIO ¿E?

JUSTINO (*Leyotik*) Ondo da.

BRAULIO ¿Zer? ¿Aitu al dek ezer?

JUSTINO ¿Nik?

BRAULIO Ik bai, aitzen egon. ¡Ator onera! ¿zer esan dek?

JUSTINO ¿Nik? Leyotik ikusi det On Esteban, sendakiña, esan dit bixita bat egin ta badatorrela, eta nik erantzun diyot “bai jauna”, “ondo da”.

BRAULIO Iduritu zaidak...

JUSTINO Utzi bitza bein irudipen zoru oyek. Ara, exeri bedi emen. (*Exertzen dira biyak*)

BRAULIO Bai, bai, ta i nere aldamenian... Alderago... alderago...

JUSTINO Bai osaba.

BRAULIO ¿Ez nazute beñere utziko e?

JUSTINO Ez jauna ez. Mariya ta ni...

BRAULIO Nerekin izango zerate bai.

JUSTINO ¿Nola eskerrak emango dizkagu?

BRAULIO Nere onduan bizitziakin.

JUSTINO ¡Zer ona dan!

BRAULIO ¡Ona! ¿Ni ona?

JUSTINO ¿Nola ez bada?

BRAULIO Irakur zak zerbait, irakur zak.

JUSTINO (*Irakurtzen*) “Jaungoikua guztiz zuzena da. Berak daki noiz nori ondasunak eman biar dizkan, eta noiz ez. Noiz ta nori kendu biar diyozkan edo ez diyozkan. Ta ez du nai Jaungoiko santubak bide orretan iñork esku artzia, ¿Zer egiten du bada lapurrak?...”

BRAULIO ¿E? ¿Zer?

JUSTINO ¿Zer du osaba?

BRAULIO Ezer ez... (ez dezala ezagutu beñere).

JUSTINO ¿Zer egiten du bada lapurrak?...

BRAULIO Aurrera, aurrera.

JUSTINO “Guztiyok dakiguna. Jaungoikuak bere gogo santubaz bati eman diyon ondasuna kendu ta bereganatu”.

BRAULIO Beti batera.

JUSTINO “Doakabea mundu ontan, ¿eta bestian?”

BRAULIO ¡Utzi Justino... utzi ori!

JUSTINO “Inpernuko miñ eta oñaziak aundiak dira...”

BRAULIO (*Altxaturik*) ¡Aski da! ¡Aski da! Utzi, utzi liburu ori...

JUSTINO Bañan... ¿zer du osaba?

BRAULIO Eraman zak; ua.

JUSTINO ¿Irudipenak berriz?

BRAULIO Utzi nazak, bakarrik nai diat egon.

JUSTINO Bañan...

BRAULIO Ua... ua...

JUSTINO Len elkarrekin eta orain...

BRAULIO Laga nazak pakian.

JUSTINO Orla etzaizka juango burutaziyo txar oyek... (*Joaten da ezkerretik*)

ZORTZIGARREN IRUDIA  
VIII  
BRAULIO BAKARRIK

BRAULIO

¡Beti gauza bera!. Albanezake kendu nere barrendik leku aren oroipena. ¡Zorigaiztoko eguna! Ta iñork ez daki, iñork ezin jakin lezake... ta alare biyotza urratzen zait, ta barrenak oju egiten dit, “Ori, zuk egin zenduan... ¡ara!... ara aurrean daukazu gizon ura, zure adiskide ona, ostu zeniyona...” ¡Jesus!... Ostu orrenbeste urteko nekiarekin irabazi zuben dirua...

Ezer gabe gelditu zan, eta ikusirik bere errukarrizko emazte ta alabatxua kalian erdiyan zirala, gaitz gogor batek eldu ziyon, eta eritegi... ospitaleko oi batian, bere emazte ta biyotzeko alabagandik urruti, bakartasun negargarrian... Jaungoikuari kontu eman ziyon.

¡Ill zan!... ¡Ta neregatik ill zan!

AMerikara jua nitzan errez dirua egiteko ustian... bañan urtiak jua, urtiak etorri, gogotik lana egiñik, meza bat entzuteko denbora gabe, eta alare emen baño zallago irabazten nuben, eskerrak jateko diña izaten banun.

Erlijiyo santubaz aztu nitzan, diru gosea nekarren, denbora jua eta ezin aberaztu, ta... ordu laurden batian diru pilla aundiyaekin arkitu nitzan...

Diru pilla arrek ondatu nau. Andik datoz nere atsekabe guztiak. ¡Zorigaiztoko ordua!... ¡Jaungoiko maitia!... Bañan nola erregutuko diyot Jaungoikuari, bere lege santubaz aztuta bizi banaiz. ¡Errukarrizko izaera!

*(Esteban atzetik)*

BEDERATZIGARREN IRUDIA  
IX  
BRAULIO TA ESTEBAN

ESTEBAN

*(Sartubaz eta txapela ta euritakua beren lekuban utziyaz).*  
Arratsalde on, On Braulio.

BRAULIO

¿Zein da? ¡A! Ongi etorri.

ESTEBAN

¿Zer degu? ¿Nola gera, nola? *(Braulioren onduan exeriyaz)*

BRAULIO

Ni, beti bezela.

ESTEBAN

Ikusi zagun, ikusi zagun. *(Pultsuba artubaz)* ¿Bart lo egin du?

BRAULIO

¿Ez, Esteban ez!

ESTEBAN

¿Ez al zituben artu lo egiteko agindu nizkan autz ayek?

BRAULIO

Bai, bañan oyeratu ta beriala ikusten ditut gauza batzuek...

ESTEBAN

Flakiyak ematen dituben txorabiyuak dira oyek.

BRAULIO

¿Txorabiyuak e?

ESTEBAN

Bai, Braulio, bai. Orregatik jartzen zaizka irudipen oyek.

BRAULIO

¡Irudipenak bai!

ESTEBAN

Esaten diyot nik, jan egin biar dubela ta ibilli gogotik.

BRAULIO

Albanezake...

ESTEBAN

Saya bedi, ta ikusiko du nola alde egingo dioten gaitz oyek guztiyak. *(Zigarro bat antolatuaz)*

BRAULIO Nayago nuke bada. (*Argiya pistutzen dubenian, Estebanek begiratuko diyo lenbizi Braulioren mingañari, ta gero pistuko du zigarroa*).

ESTEBAN Aurrera, aurrera, beorren aldetik zerbait jartzen badu, mutil gazte bat bezela arkituko da beriala.

BRAULIO Nere ametsak ez dira orren urruti iritxitzen.  
ESTEBAN (*Altxiaz, eta batera ta bestera ibilliaz*). Esan niyoten bada etxian, atzo emen itzezin gendubena Justino eta nere illobaren arteko ezkontzaren gañian, eta oso ondo artu zuten.

BRAULIO Bai, izan da emen andre Prudentxi, eta ala adierazi dit.  
ESTEBAN ¿Izan al da emen? ¡Jas! Ez da gelditzen etxian.¡Berak ezkondu biar balu baño arruago dabill!.

BRAULIO Zer nai dezu bada.  
ESTEBAN ¡Emakumiak! ¡Emakumiak!. Dala berena edo besterena, txantxatakua edo egiyetakua, ezkontzaren usai utsakin txoratzen dira.

BRAULIO ¡Asko maite du Mariya!  
ESTEBAN Ori bai. Izan ere alakoxia da bera. Ez da nik esatia ondo, baño Justinok emakume ona, ta Urnietako kanpaya baño fiñagua artuko du.

BRAULIO Bai noski.  
ESTEBAN Gaxuak ez du ezer...  
BRAULIO Ez du orrek ezer esan nai.  
ESTEBAN Alare, badaki On Braulio, nere alderkitxuak baditudala, eta esku utsetan ez dugula utziko. Guria ez degunik etzaigu iruditzen, eta ditugun apurrag orrentzat izan biarko dute.

BRAULIO Neriak ere badakizu zeñentzat izan litezken.  
ESTEBAN Bai, Mariya gaxuak beste gisan agertu biar zuben, baño etzan komeni noski ta... ¡Zer egingo da! Bere aita, nere anaya, gizon prestu bat zan, galdu zituben guztiyak eta...  
¿Galdu?

BRAULIO Amerikara, beorri bezela, jua zan ta, urte askoren buruban, suerte batez egin zituben... egin zitubenak, baño ¡a! oroitziak berak puskatzen du barrena.  
ESTEBAN ¿Zer bada?

BRAULIO Ostu egin zizkaten.  
ESTEBAN (*Arriturik*) ¡Ostu! ¡Ostu!  
BRAULIO Bai, Braulio, bai. Juan biar presakako bat izan biar zuben, eta bere adiskide baten eskuetan utzi zituben guztiyak, eta... ¡zer adiskidia!.

BRAULIO ¿Nola? ¿nola?  
ESTEBAN Jabe egin zan guztiyaz, beriala alde egiñik.  
BRAULIO ¡Ixo! ¡ixo!.

BRAULIO Bai, gizon prestubak ez daki nola egin litezkian gauziyok. On egin ziyon zori gaiztoko kolpi arrek. Ikusi bazuben Mariyaren aita zana, zorigaitz arrekin mintsu jarri ta, ateik ate, ogi puzka bat eskatzen...  
ESTEBAN ¡Aski da! ¡Aski da!

BRAULIO Azkenian zutik ezin egonik arkitu zanian, eraman zuten eritegi, ospital batera...  
ESTEBAN ¡Esteban! ¡Esteban!

BRAULIO Bai, biyotz ona du beorrek, eta ezin aditu ditu gauza oyek.  
ESTEBAN Ta, ¿ez da jakin zeñek egin zuben ori?...

ESTEBAN Ez. ¡A! jakingo balitz, sei bizi izanta-re, seyakin ez luke egin zubenik ordainduko.

BRAULIO ¡A!

ESTEBAN ¡Negargarrizko Juan Antonio!

BRAULIO ¡¡Juan Antonio!!! ¡¡A!! (*Erortzen da exerlekuan korderik gabe*)

ESTEBAN ¿Zer du? (*Ojuka*) ¡Braulio! ¡Braulio!. Izen au aditu ta orla... Ameriketan izana... ¿Au ote da? (*Patrikeratik ateratzen du ontzi txiki bat eta sudurretan jartzen diyo*) Ezin lo egiña... Braulio... Braulio...

BRAULIO ¿E?

ESTEBAN ¿Pasa al zayo?

BRAULIO ¿Pasa?... ¡A! Bai... (*Begiraka*) Juan Antonio...

ESTEBAN Bai, Juan Antonio Tximistegi.

BRAULIO ¡A! ¿Zer da au? (*Buruari elduaz*)

ESTEBAN ¿Berriz?

BRAULIO Ez, ez... ¿Ta gero?

ESTEBAN Mariyaren amak jakin zubenian bere senarraren doakabezko gertaera, burutik jarri zan, eta eldu ziyon pixkanaka urtzen duten miñ ikaragarri oyetako batek ta...

BRAULIO ¡Ori geyago! ¡Izugarria da ori!

ESTEBAN ¡Ain izugarriya! Ordutik Mariya gaxua gurazorik gabe gelditu zan...

BRAULIO Datorrela bada beriala Mariya... (*Larri*) Bañan, ez, ez...

ESTEBAN Nai duben bezela...

BRAULIO Bai, bai... datorrela...

ESTEBAN Aurki arte bada...

BRAULIO Bai, Esteban, bai. Aguro etorri. (*Estebanek artuko ditu euritakua ta txapela, ta alde egingo du noizian bein begiratu txar batzuben Brauliori botiaz. Au bitartian egongo da begiyak altxatzeko bildurraz*)

#### AMARGARREN IRUDIA

X

#### BRAULIO BAKARRIK, GERO JUSTINO

BRAULIO ¡A! Uste nuben nere azken ordua nerekin nubela... Bañan ez, ez, bizi egin biar det... Mariyaren aita zan nik... nik... ¡Jesus! ostu niyona. Mariyaren diruak ditut eskuak erretzen dizkiraten oyek. Guztiyak eman biar dizkat bai... lenbailen... Gauza guztiyen jabe egin biar det. Beriak dira, datorrela lenbailen. Guztiyak ematian zabalduko al da nere barrena... bai... kenduko zait itotzen nauen gauza au. Paketasuna izango det. (*Begiratuaz*) ¡Ez dator oraindik! ¡Zer luze dijuan denbora! (*Ojuka*) ¡Justino!... ¡Justino! Ezin egon naiz.

(*Justino ezkerretik*)

JUSTINO (*Ezkerretik sartubaz*) Emen naiz osaba.

BRAULIO Ua, ua aguro Mariyaren billa, datorrela lenbailen.

JUSTINO ¿Illunabarrari itxoin gabe?

BRAULIO ¡Illunabarra! Ez nezakek orrenbeste itxongo.

JUSTINO ¿Ez al dago ondo?

BRAULIO Mariya etorri bitartian ez. Datorrela beriala.

JUSTINO Esango diyot bada andre Prudentxiri. (*Txapela artubaz*)  
BRAULIO Bai, andre Prudentxi, Esteban, Mariya, guztiyak... datozela  
guztiyak, baña datozela... jaguro!  
JUSTINO Banua bada lasterka.  
BRAULIO Bai, ua bizi, bizi. (*Joaten da atzetik*)

AMAIKAGARREN IRUDIA  
XI  
BRAULIO, GERO MIGEL MARTIN

BRAULIO ¿Noiz artuko det arnasa abo betian? ¡Juan Antonio eritegian,  
ospitalian!... ¡Emaztia erotuta!... ¡Mariya berriz!... ¡A! bañan bein  
eman ezkerro beria, ez daukat zergatik eztutu biarrik.

(*Migel Martin atzetik*)

(*Migel Martin sartzen da atzeko atetik. Norbait dala igarritzen du  
Brauliok*)

BRAULIO ¿Ayek ote dira?

MIGEL MARTIN Arratsalde on.

BRAULIO Ez, ez dira.

MIGEL MARTIN ¿Zer degu? ¿Pixkor dabil?

BRAULIO Ez nai bezela. ¿Ta zuek?

MIGEL MARTIN Jaungoikuari eskerrak ondo, ondo. Oyak uztutzen ditugu, lana  
egiteko osasuna badegu, ta gure uzkeriyan alimo, beti alimo.

BRAULIO Eta zure barrenen ¿ezer dezunik ez dezu sentitzen?

MIGEL MARTIN ¿Gure barrenen? Ezer ez izatiatik, askotan janik ere ez degu  
izaten. Lan egiñ ta lo bete betian.

BRAULIO ¡Lo!... ¡lo!... Nik ezin dutana.

(*Illuntzen asten du*)

MIGEL MARTIN Egiten degu bada guk, ondo ta lasai. Bañan beorri aberatsa da ta,  
nekatzen ez danak, ez dago, ez dago, baten orde bestia.

BRAULIO ¡Nekatu!... ¡Nekatu!...

MIGEL MARTIN Bai jauna. Baba, esnia ta gazta zarra jan gogotik, ta lo. Esaten  
niyon bada nik, orrela lo egingo zubela.

BRAULIO Ez ta alare. Beti ura...

MIGEL MARTIN ¿Ura?... Edan beza sagardua edo ardua, ta ikusiko du. ¡Guk  
pitarrarekin ere lo egiten degu!

BRAULIO ¡Zorionekuak!

MIGEL MARTIN Gu beti batian, ta beti alai, alai.

BRAULIO (*Ate aldera begiratuaz*). Ez datoz oraindik.

MIGEL MARTIN Beorri beñepin, Amerikara jua zan ta, guk gure biziyan egingo ez  
deguna egin zuben.

BRAULIO ¡Nik egin! ¡A! Bai, ¡zorigaiztoan!

MIGEL MARTIN ¡Zorigaiztoan?

BRAULIO Ez dezazutela sekulan orlakorik egin.

MIGEL MARTIN ¿Ez? Aberastu ta... orren denbora gutxiyan ta...

BRAULIO ¡Gutxiyan!

(*Illunago*)

MIGEL MARTIN Ba bai. An dirua errez egiten dala ta, ezagun da bai.



BRAULIO                    ¡Errez! Itz au bera naikua det nik buru guziya naztutzeko. (*Ate aldera begira*) Ez datoz, ez datoz... ¡Prejitzen dago nere barrena!  
MIGEL MARTIN            ¿Ez al dago ondo?  
BRAULIO                    ¿Zer det? ¿Zer det miñ au? ¡Exeri ta ezin egon! ¡Altxa nai ta ezin altxa!. ¡Au lana! ¡Au lana egin nuben!.  
MIGEL MARTIN            (*Alde guztietara begiratubaz eta Brauliori elduta*) ¡Gizon au ez dago ondo!

(*Oso illun*)

BRAULIO                    (*Txorabiyuan balego bezela*) ¡Eriotza!... ¡Eriotza gañera datorkit!... ¡Orra!... ¡Orra or Luzifer sega beltzarekin dator!... ¡Itxongo!... ¡Itxongo pixka bat! ¡Mariya! ¡Atoz lenbailen!... ¡Itxoingo!... ¡Atoz Mariya! ¡Zori! ¡Zuriak dira!. Ez det emendik eskutatu nai ordoikeri guztiyak oso garbitu gabe... ¡Itxongo, itxongo!...

(*Justino atzetik*)

AMABIGARREN IRUDIA  
XII  
LENGUAK, JUSTINO, ANDRE PRUDENTXI, MARIYA TA ESTEBAN.  
(*Tximista ale batzubek*)

JUSTINO                    (*Atian azaldubaz*) ¡Emen gera, osaba, emen gera!

(*Alde beriala*)

BRAULIO                    (*Bereganatzen bezela*) ¡E! ¡A! ¡Bai!  
MIGEL MARTIN            (*Oso larriturik*) Ez alde egin, au gaizki dago. (*Berengana itzul egiten du*)

(*Andre Prudentxi atzetik*)

ANDRE PRUDENTXI        (*Sartubaz*) Ara, ara, emen gera danak.  
BRAULIO                    ¡Mariya! ¡Aguro Mariya!

(*Justino, Mariya ta Esteban atzetik*)

JUSTINO                    (*Sartubaz Mariya atzetik dubela, ondoren Esteban*) Emen dator  
BRAULIO                    ¡Bai, bai! ¡Mariya!  
JUSTINO                    Ara...  
ANDRE PRUDENTXI        Ara gure panpoxa.

(*Tximistak ugari, turmoi batzubek*)

(*Jartzen dute Mariya Braulioren aurrian*)

BRAULIO                    ¡A!... ¡Bai! ¡Jesus!... ¡Aita berbera!... ¡Juan Antonio!. (*Korderik gabe bezela erortzen da exer lekuan*)  
JUSTINO                    ¡Osaba!

MARIYA                    ¡Zer du!  
ANDRE PRUDENTXI    ¡Au badijua!  
ESTEBAN                ¡Berriz! (*Estebanek laguntzen diyo Brauliori, gañerakoak inguratzen dute*)  
BRAULIO                ¡Lepua!... ¡Odolak!... ¡Itotzen!... ¡Ura!... ¡Aizia!... ¡Ajea!... ¡A!. (*Ilta gelditzen da*)  
ANDRE PRUDENTXI    ¡Apaiza! ¡apaiza!

(*Tximistak eta turmoyak gogorki*)

ESTEBAN                Berandu da.  
ANDRE PRUDENTXI  
TA MARIYA             ¿Zer?  
ESTEBAN                Len loik ez, ta orain badu puzka baterako.  
JUSTINO                ¿Nola?  
ESTEBAN                Gorputz da.  
JUSTINO                ¡Ill da!  
ANDRE PRUDENTXI  
TA MARIYA             ¡Ill!  
ANDRE PRUDENTXI    ¿Zer zuben bada?  
ESTEBAN                Munduban izan leiken gaitzik aundiyena.  
DENOK                 ¿Zer?  
ESTEBAN                Barrenen arra.

AMAITU DA